

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarreko idazkariaren lanpostua betetzea, zeina Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzat erreserbatuta baitago

Gobernu Batzarreko idazkariaren lanpostua bete beharra dago, haren titularrak benetan beteko ez duelako 2026ko maiatzetik ekainera eta 2026ko irailetik azarora.

Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuko 48. artikulua eta hurrengoak ikusirik, hau

Ebatzi dut

Lehena. Diruzain lanpostua betetzeko Estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionario baten izendapena proposatzeko prozedura abiaraztea, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduren bat baliatuz eta horietan adierazten den lehentasunarekin.

Bigarrena. 5 egun balioduneko epea irekitzea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eskabideak aurkez ditzaten, eranskin gisa doan ereduaren arabera, eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionario bat izendatu beharko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala eta kategoria berekoek.

Egoera bakoitzaren barruan, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaur-laritzak argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorra hartuko da aintzat lehentasuna ezartzeko.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduetako edozein baliatuz aurkeztu ahalko da idazkia.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun-ordena ezarri ondoren, eta Vitoria-Gasteizko Udalak hurrenkera horren arabera izendapenaren aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatuko zaio, hamar egun balioduneko epean, destinatuta dagoen toki-erakundearen aldeko txostena aurkezteko, aipatutako artikuluetan xedatutakoari jarraituz, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak aurkezteko ere.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuko 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako prozedurarekin jarraitzea.

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo osoko bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena:

Lan-harremana: Estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: Estaturako gaikuntza.

Azpieskala: Idazkaritza. Lehen klasea.

Azpitaldea: A1.

Destino-osagarria: 30.

Berariazko osagarria: 5.

Hizkuntza-eskakizuna: 4.a (derrigortasun data: 1994ko abenduaren 31).

Vitoria-Gasteizen, 2026eko apirilaren 14an

Alkatea

MAIDER ETXEBARRIA GARCIA

ERANSKINA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:; jakinarazpene-
tarako helbidea:; herria.....; telefono-zenbakia:),
zeinak Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa baita,
azpieskalan, eta gaur egun lanpostua betetzen ari baita
Toki-erakunde, (e) k egindako izendapenaren bidez,
datan horren jabetza hartu zuelarik (edo egoera hauetako batean baitago: zerbitzu aktibora
itzultzea – lankidetzeta-lanpostuak kentzea - izendapen askeko lanpostuak uztea), hau

Adierazten du

Jakin duela ***-(e) ko Udaleko diruzain lanpostua hutsik dagoela edo titularrak ez duela
benetan betetzen, eta hori behin-behineko izendapenaren, zerbitzu-eginkizunen edo metake-
taren bidez betetzeko aukera dagoela.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak
betetzen dituela, indarrean dagoen legeriaren arabera; beraz, dagozkion izapideak bete ondo-
ren, honako hau

Eskatzen du

Parte hartu ahal izatea ***-(e) ko Udaleko diruzain lanpostua behin-behineko izendapenaren,
zerbitzu-eginkizunen edo metaketaren bidez (ez dagokiona ezabatu) betetzeko prozeduran.

Honekin batera agiri hauek aurkezten ditu:

* NANaren fotokopia.

* Estaturako gaikuntza duen toki-administrazioko funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

* Lanpostua metaketaren bidez eskatuz gero, dagoeneko metaketaren bidezko izendapenik
ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

.....(e) n, 20....(e) koren(e) an.

Sinadura: